

EUSKALDUNONTZAT EZ DAGO JUSTIZIARIK

E.H.E. ERAKUNDEAREN KANPAINA

Duela egun gutxi E.H.E. erakundeak *Euskaldunontzat ez dago justiziarik* izenburuko adierazpena kaleratu zuen, horren bidez urriaren 13an epaitu zituzten sei gazteekiko alkartasuna adieraziz eta justizi administrazio espainiar eta frantziarrean euskarak bizi duen bazterketa larria salatuz. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak alkartasuna adierazi zien epaitu dituzten sei gazteci, alkartasun hori ondoren adicraziriko arrazoietan oinarrituz:

a) Euskara gure hizkuntzaren erabilera zabaldu, euskal gizartean normaldu eta arnasberritzearren Larramendi Bazkunak jorratu nahi duen bidean erro-errotik, bazter-bazterretik salatu, ezabatu eta zapuztu nahi ditu herritarren oinarrizko hizkuntz eskubideak baztertu, gutxietsi edo bortxakeriaz zapaltzen dituen jokabide oro. Hitz batean esateko, hiritarrek elkarrekin gizalegez eta begirunez jokatzuz nahi lituzke egin euskararen alde egin beharreko lana eta ahalegina, hizkuntz liskarrik sortu gabe. Hori maiz zail gertatzen da, eta maiz salatu beharrean gaude batzuen ala besteen jokabide -gure ustez- bidegabe eta onartezinak.

b) Euskal Herriko Erkidego Autonomoko Autonomia Estatutua onartuz geroztik ia hogeitau urte joan dira, baina, zoritxarrez, hogeitau urte horiek ez dira nahikoa izan Hego Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan euskararen erabilera normalduko duen oinarrizko egitasmo bakar bat gauzatzeko. Are gehiago, epaile gutxi batzuen jardun eredugarria izan ezik, euskararen erabilera itzultzaile eta interpretarien bidezko jardunera mugatu da, maiz, gainera, ez baldintza egokienetan jardutekotan. Salatu nahi duguna da, beraz, Euskal Herriko Erkidego Autonomoko Justizia Administrazioak, are gutxiago Nafarroako edo Ifarraldekoak, ez duela deusik egin ia hogeitau urte hauetan euskara justizia administrazioan hiritar euskaldunekiko benetako harreman eta lan hizkuntza izan dadin, erabilera normaldu eta zabaltzeko plangintza bakar bat ere ez duela gauzatu, bertako arduradun politiko, epaile eta langileek arduragabekeria baino ez dutela azaldu, beraiek behar zutelarik izan, bere egitekoen irismen eta mailagatik, administrazioiko gainontzeko langileentzat eredu.

Berriz ere egiazta liteke, zoritxarrez, justizia administrazioa ez dela alor umotua euskararen erabilera aldatzeko.

c) Gure iritzi arduragabekeria baino azaltzen ez duen jokabide horren aurrean epaituriko sei gazteek burutu duten protesta ekintza -epaiketa zibil bat eteten saiatzea egoera hori salatzeko- horri eman dakioken *erantzun bidezkoetariko* bat besterik ez da, herritar batzuen haserrea azaltzeko aukera bakarretarikoa, dirudienez adierazpenak, legea garatu eta betetze-

ko eskaerak eta gainerakoak hutsaren hurrena gertatzen direnean entzungor egiten duten politiko eta profesionalen aurrean.

Justizian euskara erabiltzearen inguruan azken hilabeteotan sortu diren liskarretan argi eta garbi ikusi ahal izan da hala epaile eta justiziako profesionalen inguruko elkarte, nola, oro har, Espainiako komunikabideetan sortu diren erreakzio, jarrera eta jokabideak, horietariko asko inolako begirunerik gabeak justizia ere euskaraz nahi dugun herritarrentzako, eta profesionalen «berekoikeria» hutsa eta komunikabide askoren itsukeria egoskortua azaldu dutenak.

Jarrera eta erreakzio horien parean jarriz gero sei gazte horien protesta ekintza, erantzun *bidezkoztat* jo liteke -beste batzuk ere bai baitaude-, eta behingoz herritarren ardura ernaraziko duen ekintzatzat.

d) Uste dugu, azkekin, egokiera polita duela Justizia Administrazioak protesta ekintza hauek ugaritu eta areagotu baino lehen, aspaldi sortua den auziari zentzuzko eta legezko irtenbidea emateko, behingoz lehentasunez, ganoraz eta asmo eraginkorrez gauzatuz Justizia Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzeko egitasmoak.

Asteasu, 1998, urriak 16.

Larramendi Kultur Bazkuneko
Zuzendaritza Batzordea

Euskaldunontzat ez dago Justiziarik.

- epaituenganako elkartasun agiria-



URRIAREN 13an sei gazte non lau andoaindarrak diren epaituak izango dira Donostiako Epaitegian euskaldunon eskubideak onartzen ez dituen justizia administrazio espainiar eta frantsesa salatzeagatik. Euskaldunok diskriminatuak gaude justizia administrazioan, bai legez hizkuntza eskubideak bermatuak ez dauden lekuetan (Iparraldea eta gune ez Vascofonoan) eta baita euskara ofiziala den lekuetan ere (euskararen presentzia ez da sinbolikoa izatera ere iristen).

Euskaldunok gure hizkuntzan defendatzeko eskubidea dugu eta aukera hori ez izateak indefentsioa sortzen du. Honetaz gain itzultzaileek ere gure herrian arrotz izanarazten gaituzte, hizkuntza ofiziala ezagutzen ez dutenentzat baitira.

Ondorioz nabarmena da euskarak eta euskaldunok ez dugula justiziarentzat baliorik. Non dago balizko eskubidea? Non euskaldunak euskaraz egiteko eskubidea?

Egoera honi aurre egin nahi izan dio E.H.Ek euskaldunon hizkuntza eskubideen bermatzea eskatuz, hau da, justizia administrazioarekin harremana euskaraz izateko eskubidea aldarrikatuz (eta beraz epaileen, fiskalen eta justizia administrazioiko beste alorren euskalduntzea suposatzen duena) eta justizia administrazio euskalduna aldarrikatuz.

Kontraesankorra badirudi ere Justizia eskatzeagatik Justiziak epaituko ditu sei gazte euskaldun. Andoainen bereziki auzi honek duen indarragatik, lau epaitu andoaindarrak baitira, behean izenpetzen dugunok andoaindar gazte hauekin bat egin nahi dugu eta elkartasuna adierazi nahi diegu.



▼ ANDOAIN

La asociación Larramendi denuncia que el euskera está marginado en la Administración

Se solidariza con los jóvenes juzgados por intentar suspender un juicio civil

MARIVI OLANO/DV. ANDOAIN

La asociación Manuel Larramendi ha mostrado su solidaridad a los seis jóvenes de Euskal Herria Euskaraz juzgados el pasado 13 de octubre por intentar suspender un juicio civil, acción de protesta que, según la junta rectora de dicha asociación, «no es más que una de las pocas opciones que quedan para expresar el malestar de unos ciudadanos cuando parece que declaraciones, solicitudes de cumplir con la ley y desarrollarla, y demás iniciativas son poco o nada ante políticos y profesionales que hacen oídos sordos».

La asociación afirma que en los más recientes conflictos surgidos en torno al uso del euskera en la Administración de Justicia se ha podido observar «cuáles han sido las reacciones, posicionamientos y actitudes tanto de asociaciones del ámbito de jueces y profesionales de la judicatura como, en general, de medios de comunicación españoles. Estas actitudes —continúa la asociación— están carentes del más mínimo respeto hacia los ciudadanos que deseamos contar también con una justicia en euskera».

Normalización del euskera

En su comunicado de apoyo a la campaña 'Euskaldunontzat ez dago justiziariak' de EHE, la asociación Larramendi afirma que, después de transcurridos veinte años desde la aprobación del Estatuto de Autonomía, este tiempo no ha sido suficiente para «desarrollar un solo proyecto básico de normalización del uso del euskera en la Administración de Justicia del País Vasco», limitándose su presencia a la intervención de traductores e intérpre-



Jon Unanue, a la izquierda, presidente de la asociación Manuel Larramendi/UNANUE

tes. Ante esta situación, la asociación denuncia la inoperancia de la Administración de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco y, por añadidura, la de Navarra e Iparralde, «que no ha hecho absolutamente nada durante estos casi veinte años para que el euskera sea realmente lengua de comunicación y de trabajo para con los ciudadanos vascoparlantes, que no ha elaborado ni un solo plan para normalizar y extender el uso del euskera en esa administración, y que responsables políticos, jueces y trabajadores no han dado muestras más que de su irresponsabilidad al respecto».

La asociación Larramendi considera que la Administración de Justicia cuenta ahora con una adecuada oportunidad para dar a este conflicto «una solución legítima y razonable», antes de que acciones como la protagonizada por los miembros de EHE se multipliquen. Para ello, debería elaborar «con carácter prioritario, fundamento y ánimo ejecutivo, planes para promover y garantizar el uso del euskera en la Administración de Justicia».

Concierto de Krahe

La Comisión de Cultura comunica que las entradas para el concierto

de Javier Krahe, previsto para el sábado, día 31, a las ocho de la tarde, en La Salle, pueden adquirirse hasta el próximo viernes en la Casa de Cultura, al precio de seiscientas pesetas (venta anticipada). El sábado las entradas se venderán a setecientas pesetas en la taquilla de La Salle.

Farmacia de guardia

El turno de guardia le corresponde atenderlo durante la jornada de hoy, miércoles, a la farmacia Gorospe, que se encuentra ubicada en la calle Rikardo Arregi, número 12, y cuyo número de teléfono es el 943-592415.



Portada de la revista 'Bertan'.

La revista Bertan se repartirá mañana con el periódico

DV. ANDOAIN

La revista Bertan Donostialdea del mes de octubre incluye un reportaje sobre el hermaniarra polígono Eztago, un ejemplo de la regeneración industrial. Asimismo, se narra los últimos logros en tiro al plato, una modalidad deportiva que en Hernani cuenta con numerosos seguidores. La vieja taberna La Bodega, en Lasarte-Oria, ha sido derribada para dar paso a la construcción de viviendas. Andoain se prepara para recibir, el 7 de noviembre, el espectáculo Kondharian, dantza y cuentos en el polideportivo Allurralde.

Otros reportajes de interés se refieren al nuevo ramal de tren entre Txikiardi y el casco urbano donostiarra, en cuya inauguración participó el maquinista Felipe Martín; Andoni Illarramendi, que terminó el triatlón de Ibizta. Las viviendas tuteladas para mayores en Astigarraga, la receta del mes a cargo de Martín Berasategi y la agenda conforman un ejemplar de mucho interés.

▼ ASTIGARRAGA

Victoria del Mundarro contra el Gwendolyne

JOXE ORMAZABAL/DV. ASTIGARRAGA

Aunque por el momento sólo con la ventaja de tres goles, el Mundarro de Primera Regional ostenta, con 16 puntos, su liderazgo sobre el segundo clasificado, el Hernani. El último partido —disputado en Zarkumendegi, el pasado sábado, frente al irundarra Gwendolyne, concluyó con victoria astigarratarra por la mínima de 1-0. Este resultado no refleja en absoluto lo acaecido durante el encuentro, pues el Mundarro, con equipo formado por Mikel, Duarte, Zuaznabar-Arruabarrena, Azkona, Zabalegi, Iturriza, Urtia, Muñoz, Gorosabel, Artola —relevado por San Sebastián— e Iruretagoiena con Ramos, debió llegar al descanso sumando otros tres goles al margen del logrado por Gorosabel en el minuto 37.

De evitarlo tan incomprensiblemente se encargaron, además del portero visitante Benito —con su brillante actuación—, diversos fallos de consideración del Mundarro. No es lógico que se desperdiciaran tantas oportunidades

de gol y, menos aún si cabe, con un equipo visitante que durante toda la primera parte y casi toda la segunda se mantuvo totalmente a merced de los chavales astigarratarra. Pero estos, entre fallos de envergadura propios, y magníficos aciertos del meta visitante, desperdiciaron una oportunidad de oro para, además de la merecida victoria, ofrecer al numeroso público el siempre bien recibido recital de goles.

Lo único positivo aportado por el Gwendolyne fue un breve intervalo, avanzada ya la segunda mitad, con algún remate de calidad, que Mikel, oportunamente, neutralizó, evitando lo que hubiera sido injusto empate. El joven pero ya experto colegiado Atrrasagasti logró en solitario —dada la lamentable ausencia de los habituales y casi imprescindibles jueces de línea— estar en todo momento a la altura de los mejores, merced a sus demostrados conocimientos y facultades físicas. Esto último le valió para controlar sin ayudantes todo el partido.

▼ URNIETA

El PNV fue el partido más votado y el PP el de mayor incremento de votos

LANDAZURI/DV. URNIETA

Los resultados de las elecciones autonómicas revelan que las cinco primeras fuerzas políticas de Urnieta (PNV, EH, PSE-EE, PP y EA) han conseguido mejorar sensiblemente los resultados obtenidos en los anteriores comicios para elegir el Parlamento Vasco. En ello ha influido el sensible aumento del censo urnietarra, pasando de 3.600 personas en 1994 hasta los 4.200 de 1998.

El partido que más votos ha conseguido ha sido el Partido Nacionalista Vasco, con un total de 904 frente a los 739 que obtuvo en las anteriores. Euskal Herriarrok se consolida como segunda fuerza política de Urnieta, con 659 votos; en 1994 había obtenido 492. El Partido Socialista de Euskadi ocupa el tercer lugar con 543 votos; en el 94 fueron 386. El Partido Popular sube a la cuarta posición con 359 votos, siendo el partido que más votos gana con respecto a las elecciones de 1994, en las que obtuvo 126. En quinto lugar se encuentra Eusko Alkartasuna, con

254 votos, ante los 198 conseguidos en 1994.

Izquierda Unida ha mantenido un voto fiel. Los datos de las dos elecciones son casi iguales. El domingo consiguió 136 votos, mientras que en las anteriores elecciones autonómicas había obtenido 135. Por último, Unidad Alavesa ha obtenido cuatro votos, al igual que en los anteriores comicios autonómicos.

Resultados deportivos

Los resultados deportivos obtenidos por los equipos del UKE han sido los siguientes: en lo que respecta a la sección de fútbol, los dos equipos de Segunda Regional sucumbieron. El UKE A por 1-2 contra el Axular y el UKE B por 1-0 ante el Alde Zaharra. El Primera Juvenil perdió por 2-1 contra el Mundaiz, mientras que el UKE B de Segunda Juvenil cayó por 0-2 contra el Usurbil.

El Primera Cadete consiguió una merecida victoria en su salida a Idiazabal, donde se impuso 1-2. El infantil también obtuvo un mere-

cido empate a 3 ante el Vasconia. El equipo femenino del UKE perdió por 1-1 ante el Intxaurdin.

Los equipos de la sección de balonmano han tenido resultados dispares, sus victorias y tres derrotas. Las cadetes y juveniles vencieron y el resto no lograron la victoria. Las cadetes ganaron en el derbi por 6-10 al Hernani, mientras que las juveniles vencían por 22-15 al Bergara. Los cadetes masculinos han cosechado su tercera derrota mínima de la temporada. Esta vez perdieron por 20-21 ante el Leizarán de Andoain. Las chicas del Segunda Nacional debutaron con derrota en Bilbao 18-14 ante el San Adrian. El Primera Territorial masculino cayó ante el líder Urola.



EAEn 120.000 diabete gaixo inguru daude, erdiek oraindik ez badakite ere

Plan berezi bat bultzatu dute, besteak beste eragiten duen gastua murriztu nahian


Diabetearen aurkako ekimen berezia prestatu dute EAeko osasun ardura-dunek, gaixotasun horri buruzko Aholku Batzordeak lagundurik. Adituen datuen arabera, gaur egun 60.000 diabetiko daude —Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako biztanleen %3—, baina susmoa da beste horrenbeste direla diagnostikatu gabekoak.

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

DIABETEAREN odolean glukosa tasa handiak eragiten dituen gaixotasuna da. Odol-baso txikietan jotzen badu, kalte egiten die giltzurrunei, begiei eta nerbioei; halere, odol-baso handietan ere ager daiteke, eta orduan bihotzari eta burmuinari eragiten die. Izan ere, diabetikoak bihotzeko pairatzeko posibilitatea hiru-lau aldiz handiagoa izaten da. Besteik, haurdun daudenetako %6k izaten dutela kalkulatu da.

Adituen arabera, 350 lagun hiltzen dira urtero Euskal Autonomia Erkidegoan diabetearen eraginez (emakumezkoen heriotza tasa gizonezkoen indizearen bikoitza da). Lagarren-bosgarren tokia du heriotza kausen zerrendan.

Diabeteak eragiten duen gastua, ordea, handia da. «Ballabide kontsumo handia da, bai lehenengo sorospeneri eta dagokionez eta baita berezituari dagokionez ere», esan zuen atzo Iñaki Azkuna Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak ekimenaren aurkezpen prentsaurrekoan. EAeko daturik ez bada ere, 1994. urtean Espainiako Estatu osoan 90.000 milioi pezeta gastatu zirela uste dute (3.600 milioi libera). Gainera, gasturik handiena gertatzen da diabetikoek behar iza-



Iñaki Azkuna, Jaurlaritzako Osasun sailburua.

JOSEBA OIALDE

ten dituzten ospitaleetako zerbitzuen ondorioz.

Hori guztia dela eta, plan jakin bat taxutu dute; datorren urterilean hasi eta 2002. urtean amaituko da. «Helburu nagusia da diabetearen eragina nahiz konplikazioak murriztea, eta, era berean, gaixoen osasun egoera nahiz ongizate psikiko eta soziala hobetzea», esan zuen Azkuna. Horretarako, ekimenaren zutabe garrantzitsuetako bat da diabetiko bakoitzak «autonomia maila handia» izan eta bere burua zaintzen erraztea.

Aholku zerrenda eman dute • EAeko Administrazioak nahiz elkarteei arduradunek herri-

tar guztiak gogoan izan beharreko aholku zerrenda orokorra proposatu zuten. Lehenengo eta behin, nor bere sendeengan gaixotasun honen kasurik izan ote den jakin behar du; bigarrenik, derrigorrezkoa da 60 urtetik gorako biztanle guztiak odoleko glukosa kontrolpean izatea; halaber, hipertentsioa edo obesitatea izanez gero, kontrolak 40 urtetik gorakoekin egin behar izaten dituzte. Hipertentsioak zortzi aldiz handiagoa du diabetea izateko arriskua, eta gizenak, berriz, lau aldiz handiagoa.

Azkuna kontseilariak, ohiko hitz-jarriotasunez, honako ezauzgarri hauek azaldu zituen diabetea ahaztuta izateko: «Gizena ez

izatea, tentsioa gertutik kontrolatzea eta grasekin kontuz ibiltzea, adinekoa izatea ez baita saihesteko moduko kontua».

Bestalde, Nicolas Fernandez EAeko Diabetikoek Elkarten Federazioak diabetearen arriskuak ohararazi zuen: «Diabetea ez da mingarria, eta hori azkenean problema bihurtzen da». Horren arazo zuzena da jendeak orokorrean ez jakitea, eta, gainera, makina bat kasutan gaixotasuna jakin gabe pairatzea ekartzen du. Fernandezek arabera, Administrazioak diru gehiago gastatu eta lan gehiago egin beharko luke herriarrik diabetearen gaineko informazio orokorra jaso ahal izateko. X

Larramendi
Bazkunak
elkartasuna
adierazi die EHEko
sei kide epaituei

■ *Beterriko kultur
elkarrekin dio justizia
euskalduntzeko
garaia dela*

Eredakzioa / Donostia

MANUEL LARRAMENDI Kultur bazkunak elkartasuna adierazi die duela bi aste Donostian epaitu zituzten Euskal Herrian Euskaraz taldeko sei kideei.

Aduna, Zizurkil, Asteasu, Larraul, Billabona eta Andoain Beterriko herriak biltzen dituen kultur elkarte horrek ohar baten bitartez adierazi duenez, EHEk Espainiako eta Frantziako Justizia Administrazioak euskarari egiten dioten bazterketa salatuzko egin-dako adierazpen eta aldarrikapenekin bat egiten du.

Hainbat arrazoi eman ditu Manuel Larramendi kultur bazkunak EHEko kideekin elkartasuna adierazteko: «Larramendi Bazkunak jorratu nahi duen bidean erroretatik, bazter-bazterretik salatu, ezabatu eta zapuztu nahi ditu herriarrik oinarriko hizkuntz eskubideak baztertu, gutxietsi edo bortxakeriaz zapaltzen dituen jokabide oro», dio bazkunak oharrean hasieran. Ondotik dio oso maiz zaila gertatzen dela hizkuntz lisarririk sortu gabe euskaraz normalizatzeko bidean egiten diren ahalegiak.

Bestalde, bazkun horrek ohararazten du EAEn Autonomia Estatutua onartuz geroztik 20 urte igaro direla, eta hogeitaz hurrek ez direla nahikoa izan Eusko Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan euskararen erabilera normalduko duen oinarriko egitasmo bakar bat gauzatzeko. «Are gehiago, epaile gutxi batzuen jardun eredugarria izan ezik, euskararen erabilera itzultzaile eta interpretarien bidezko jardunera mugatu da», azaltzen du bazkunak. Ondoren hauxe dio oharra: «Salatzen dugu EAeko Justizia Administrazioak, are gutxiago Nafarroako eta Iparraldekoak, ez duela deusik egin, egoera normaltzeko plangintza bakar bat ez dutela gauzatu, eta bertako arduradun politikoen, epaile eta langileek arduragabekeria baino ez dutela azaldu».

Azkenik, epaitu zituzten sei gazteek egindako ekintzari egiten dio erreferentzia idatzia: «Epaiketaz zibil bat eteten saiatzea egoera hori salatzen, horri eman dakiokien erantzun bidezkoaktioa bat besterik ez da». Besteik dio ekintza horiek gehitu baino lehen Justizia arloak euskalduntzeari heldu behar diola, justizia euskaraz nahi duten herriarrik eskubideak bermatu daitezke. X

Emakume batzuei estortsioa, bortxaketa eta tratu txarrak egiteagatik atxilotu dute ustezko erruduna Buñuelen

■ *Gizon horren langile eta biktima izan diren emakumeak ere atxilotu dituzte legez kanpo egoteagatik*

Europa Press / Iruñea

BUEÑUELGO (Nafarroa) Night Club JJ-ko jabea atxilotu zuen Polizia Nazionalak joan den astelehen goizaldera, ustezko bortxaketa, estorsio eta tratu txar delituak egiteagatik. Gizon horrek batera, han prostituzioan lanean zeuden hamar emakume atxilotu zituzten. Emakume horiek atzerriarrek dira, eta legez kanpo egoteagatik atxilotu zituzten.

Era berean, gizon horri leporatutako delituak haren klubean lan egiten zuten emakumei egiteagatik atxilotu dute, hain zuzen ere. Izan ere, behin eta berriz borxatzen zituela esan zuten emakumeak atxilotu zituztenean.

Bestalde, aitortu zuten estorsio eta tratu txar asko pairatu behar izan zituztela.

Emakume horiek poliziei emandako argibideen arabera, guztie tratu txarrak egiten zituzten, jipoitu egiten zituzten eta zigarroekin erretzen zituzten. Horrez gain, askotan bortxatu zituzten, «produktzio gaitasuna probatzeko».

Atzo goizaldera joan ziren poliziak Night Club JJ-ra, eta lokala goitik behera miatu zuten. Han zeuden emakumei paperak eskatu ostean, ez zuten erantzunik jaso. Legez kanpo zeuden. Horrez gain, estorsioaren biktima izan zirela baieztatu ahal izan zuten poliziek.

Emakumeek, jaioterriatik Euskal Herrira lanera etorri baino lehen, esan zieten beste lan bat egingo zutela. Era berean, prostituzio lanak egiten zituzten bitartean, mehatxuak jasotzen zituzten lan horretan jarraitzeko. Hori gertatu bitartean pasaporteak jabeak jasotzen zituzten. Horrela ez zuten inora joateko aukerarik.

Bestalde, emakume horiek Euskal Herriratzeko bidaiari ordaindu zieten. Klubeko jabea eta beste hainbat pertsona egon ditezke kontu honetan sartuta. Era berean, txartela ordaindu zieten esan zieten diru hori ordainduko zutela lan egiten hasten zirenean.

Pasaporteak kendu zieten, eta bide batez lanean irabazten zuten diruaren kopuru handi bat kentzen zien lokalaren jabeak, ustez bidaiari txartela ordaintzeko. Poliziek emakume horien pasaporteak gain, beste emakume batzuenak ere topatu zituzten. Beste horiek alde egin zuten, denbora bat egon eta gero.

Atxilotutako emakume horiek jatekoa eta lo egiteko lekua eman diete haien herrietara bidaltzeko agindua heltzen den arte. Agindua heldu ondoren jaioterri bidaliko dituzte, Brasilerara eta Kolonbiara, hain zuzen. X

Euskaldunontzat ez dago justiziarik E.H.E. erakundearen kanpaina

Duela egun gutxi E.H.E. erakundeak *Euskaldunontzat ez dago justiziarik* izenburuko adierazpena kaleratu zuen, horren bidez urriaren 13an epaitu zituzten sei gazteekiko alkartasuna adieraziz eta justizi administrazio espainiar eta frantziarrean euskarak bizi duen bazterketa larria salatuz. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak alkartasuna adierazi zien epaitu dituzten sei gazteei, alkartasun hori ondoren adieraziriko arrazoietan oinarrituz:

- a) Euskara gure hizkuntzaren erabilera zabaldu, euskal gizartean normaldu eta arnasberritzearen Larramendi Bazkunak jorratu nahi duen bidean erro-erotik, bazter-bazterretik salatu, ezabatu eta zapuztu nahi ditu herritarren oinarritzko hizkuntz eskubideak baztertu, gutxietsi edo bortxakeriaz zapaltzen dituen jokabide oro. Hitz batean esateko, hiritarrek elkarrekin gizalegez eta begirunez jokatzuz nahi lituzke egin euskararen alde egin beharreko lana eta ahalegina, hizkuntz liskarrik sortu gabe. Hori maiz zail gertatzen da, eta maiz salatu beharrean gaude batzuen ala besteen jokabide -gure ustez- bidegabe eta onartezinak.
- b) Euskal Herriko Erkidego Autonomoko Autonomia Estatutua onartuz geroztik ia hogeit hamar urte joan dira, baina, zoritxarrez, hogeit hamar urte horiek ez dira nahikoa izan Hego Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan euskararen erabilera normalduko duen oinarritzko egitasmo bakar bat gauzatzeko. Are gehiago, epaile gutxi batzuen jardun eredugarria izan ezik, euskararen erabilera itzultzaile eta interpretarien bidezko jardunera mugatu da, maiz, gainera, ez baldintza egokienetan jardutekotan. Salatu nahi duguna da, beraz, Euskal Herriko Erkidego Autonomoko Justizi Administrazioak, are gutxiago Nafarroako edo Ifarraldekoak, ez duela deusik egin ia hogeit hamar urte hauetan euskara justizia administrazioan hiritar euskaldunekiko benetako harreman eta lan hizkuntza izan dadin, erabilera normaldu eta zabaltzeko plangintza bakar bat ere ez duela azaldu, beraiek behar zutelarik izan, bere egitekoen irismen eta mailagatik, administrazioiko gainontzeko langileentzat eredu.

Berriz ere egiazta liteke, zoritxarrez, justizia administrazioa ez dela alor umotua euskararen erabilera aldatzeko.

- c) Gure iritziz arduragabekeria baino azaltzen ez duen jokabide horren aurrean epaituriko sei gazteek burutu duten protesta ekintza -epaiketa zibil bat eteten saiatzea egoera hori salatzen horri eman dakiokkeen erantzun bidezkoetariko bat besterik ez da, herritar batzuen haserre azaltzeko aukera bakarretarikoa, dirudienez adierazpenak, legea garatu eta betetzeko eskaerak eta gainerakoak hutsaren hurrena gertatzen direnean entzungor egiten duten politiko eta profesionalen aurrean.

Justizian euskara erabiltzearen inguruan azken hilabeteotan sortu diren liskarretan argi eta garbi ikusi ahal izan da hala epaile eta justiziako profesionalen inguruko elkarte, nola, oro har, Espainiako komunikabideetan sortu diren erreakzio, jarrera eta jokabideak, horietako asko inolako begirunerik gabeak justizia ere euskaraz nahi dugun herritarrentzako, eta profesionalen "berekoiheria" hutsa eta komunikabide askoren itsukeria egoskortua azaldu dutenak.

Jarrera eta erreakzio horien parean jarriz gero sei gazte horien protesta ekintza, erantzun bidezkotzat jo liteke -beste batzuk ere bai baitaude-, eta behingoz herritarren ardura ernaraziko duen ekintzatzat.

- d) Uste dugu, azkenik, egokiera polita duela Justizia Administrazioak protesta ekintza hauek ugaritu eta areagotu baino lehen, aspaldi sortua den auziari zentzuzko eta legezko irtenbidea emateko, behingoz lehentasunez, ganoraz eta asmo eraginkorrez gauzatzuz Justizia Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzeko egitasmoak.

LARRAMENDI KULTUR BAZKUNAKO ZUZENDARITZA BATZORDEA



SAGARDOTEGIA
JATETXEA
TABERNA

IXALAKA

EGUNEKO MENUA

Aita Larramendi, 4 ☎ 943-59 16 04 - ANDOAIN



ALOTZ
IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - ☎ 943-59 07 06
ANDOAIN